


AZAROAREN 25aren INGURUKO GOGOETA-EKINTZARAKO PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

Emakumeen aurkako
indarkeria ezabatzeko
munduko eguna



Argitaratzailea: **InteRed**

Egilea: InteRed

Diseinua eta maketazioa: Rosy Botero

Ilustrazioa: *PURA QUITERIA*

Data: 2025eko uztaila.

ISBN: 978-84-121198-8-6

*Material hau oinarrituta dago, besteak beste, Ángeles Gordillok eta Inés Reinek Reds i InteRed-en Actuant amb cures proiekturako egindako gazteentzako CNVren gidan planteatutako edukietan.

Finantzaketa:



Argitalpen hau Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziaren (AECID) finantza-laguntzarekin egin da, «Herritartasun global baten aldeko 4.7 helburua: 2030ean gure konpromisoa betetzea» hitzarmenaren kontura (2022/PCONV/000319)

Argitalpenaren edukaren erantzukizun osoa InteRed erakundeari dagokio, eta ez du, ezinbestean, AECIDen iritzia islatzen.

Contenido

Aurkezpena

pág. 4

1

**A25aren
Testuingurua**

pág. 7

2

**Saio
didaktikoak**

pág. 8

3

1. Aurkezpena

Aurten, azaroaren **25erako**, bizitzaren etapa guztietan garapen osasungarria izateko funtsezko elementu batean zentratu nahi dugu gure proposamena, oinarritzkoa baita indarkeria matxistak prebenitzeko txikitatik, eta elementu gakoa InteRed gisa hezkidetza eraldatzailearen alde egiten dugun apustutik: **indarkeriarik gabeko komunikazioa**.

Indarkeriarik gabeko komunikazioa pertsonen arteko nahiz banakako harremanak eraldatzea helburu duen komunikazio-ikuspegia da, gure emozioez, pentsamenduez eta premiez jabetzen laguntzen baitu. Norbanakoen eta elkarren arteko konfiantza eta enpatia sustatzen ditu, gatazkak modu baketsuan konpontzen laguntzen dutenak, ongizate kolektiboa eta elkar ulertzea errazteko. Komunikazio-estilo eraldatzailea da, harremanak zainketetatik ulertzen dituenak. Hezkuntza emozionala eta indarkeriarik gabeko komunikazioa haurtzarotik entrenatzea lagungarria da beharrak kudeatzeko eta behar horiek modu asertiboan eta errespetuz adierazteko, harreman positiboak eta osasungarriak ezartzeko.

Zergatik landu behar dugu komunikazioa eta zer zerikusi du indarkeria matxistarekin?

Generoak eragina dauka gure komunikatzeko moduan ere, eta komunikatzeko modu hori sistema patriarkalak erabiltzen duen zapalkuntza-bideetako bat da. Sozializazio bereiziaren bidez, haurtzarotik ikasten dugu zer komunikazio-modu onartzen diren gizartean, eta maskulinitate tradizionalako eredu bat dago, gizonen agresibitatea eta inplutsibitatea erabiltzeko permisibitate handiagoa ematen diena. Indarkeriarik gabeko komunikazioan gakotzat jotzen bada sentitzen dugunarekin identifikatzea eta konektatzea, gure beharra zein den detektatzea eta adieraztea, maskulinitate tradizionalaren eredua oztupo bat izango litzateke, emozioek eta emozioen adierazpenek gizonentzat duten garrantzia ikusezin bihurtzen baitu.

Emakumeen dagokienez, feminitate-rol tradizionalak positibotzat jotzen dute emakumeak otzanak izatea eta erantzunik ez ematea, bai eta behar dutena ez adieraztea ere. Emakumeen kasuan, emozionaltasuna adieraztea balio gabetu egiten da, gehiegizkotzat jotzen delako, arrazionaltasunaren kaltean. Gainera, sistema patriarkalaren barruko botere-harremanek emakumeen esku uzten dute gizonen beharrak asetzeko erantzukizuna, euren premien gainetik.

Indarkeriazko komunikazio-moduak, agresibitatean, erreaktibotasunean, lardetan eta zapalkuntzan oinarrituak, indarkeria matxisten parte dira, eta funtsezkoa da horiek identifikatzea, bai jasotzen dituenak bai erabiltzen dituenak. Hori dela eta, indarkeriarik gabeko komunikazioa lortzeko, ohiko genero-estereotipoen jabetu behar da, bai eta komunikazio eraldatzaile baten oinarri diren funtsezko elementuetan duten eraginaz ere.

Garrantzitsua iruditzen zaizu?

Lagun iezaguzu gogoeta-ekintzarako proposamen berri honetan.

Hezkuntza-etapa bakoitzerako diseinatutako lau jardueraren bidez, trebetasun hori landuko dugu ikasleen heldutasun-mailara egokituta, amesten ditugun gizarteetarako aldaketa-eragile gisa izango duten garapenean laguntzeko, gizarte horiek berdintasunezkoagoak izan daitezen, bizitzaren zaintzak erdigunean jar daitezen eta indarkeria matxistak benetan desagerraraz daitezen (azken hori Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren helburuetako bat da).

Proposamen hau InteRed erakundea ekofeminismoan, zaintzen pedagogian, hezkuntza eraldatzailean eta, zehazki, #BERDINTASUNARENUNEADA kanpainan garatzen ari den lanaren ondorioz sortu da. Kanpaina horren helburua da gazteen artean jarrera kritikoa, gogoetatsua eta aktiboa sustatzea emakumeek emakume izateagatik bizi dituzten desberdintasunei eta indarkeria espezifikoei dagokienez, eta hezkidetzarako ibilbide-orri baten aldeko apustua egitea, lau ardatz oinarri hartuta:



Pertsonak eta planeta zaintzea.



Identitateen aniztasuna aitortzea.



Errespetuzko eta kalitatezko hezkuntza afektibo-sexuala sustatzea.



Indarkeria matxistak prebenitzea.

Hezkidetzaren ikuspegitik, oso garrantzitsua da indarkeria matxistak betikotzen eta legitimatzen dituzten pertsonengan errotutako sinesmenak desmuntatzea. Horregatik, #BERDINTASUNARENUNEADA kanpainak IDJ ibilbideari jarraitzen dio: “identifikatzea, desmuntatzea eta jardutea”. Bide horrek gogoeta-ekintza gidatzen du, eta ikasleei indarkeria desnaturalizatzen, hura sostengatzen eta iraunarazten duten kausak ulertzen eta beren buruak al-daketa-eragiletzat hartzen laguntzen die, maila pertsonalean, baina baita modu kolektiboan ere, parekoekin, familiarekin, hezkuntza-ingurunean eta gizarte-ingurunean.

Aurtengo proposameneko jarduerak indarkeria matxistak prebenitzeko elementuen inguruan lan egiteko pentsatuta daude, eta garrantzi handia eman-go zaie pentsamendu kritikoari eta mobilizazioei, oso beharrezkoak baitira gaur egun bizi dugun egoeran.

2. A25Naren testuingurua



Azaroaren 25a Emakumearen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna da. Egun horren xedea da mundu osoan emakumeek emakume izateagatik jasaten duten indarkeria sistemiko eta sistematikoa ikusaraztea eta salatzea, eta gobernu eta erakundeei indarkeria horri aurre egiteko neurri eraginkorrak eskatzea.



ZERGATIK AZAROAREN 25ean?

Patria, Minerva eta María Teresa Mirabal ahizpak, **Las Mariposas** izenez ezagunak, 1960ko azaroaren 25ean hil zituzten, 1930 eta 1961 urteen artean Dominikar Errepublikako diktadore izandako Rafael Leónidas Trujilloren aurka demokraziaren alde egindako lanagatik.



Minerva eta Maria Teresa, beren senarrekin batera, “Dominikar Estatuaren segurtasunari aurka egiteagatik” epaitu zituzten; senrrak kartzelara sartu ziren, eta emakumeak, Patria ahizparekin batera, bahitu eta torturatu egin zituzten diktadoreak bidalitako sikario batzuen eskuetan. Saiakera ugari egin zituzten arren, ez zuten hilketa izugarri hori isilaraztea lortu, eta, azkenean, dominikar herria Trujilloren diktaduraren aurka esnatzea ekarri zuen.

20 urte geroago, Latinoamerikako mugimendu feministak egun hori aukeratu zuen **emakumeak bizi dituzten indarkeria anitzetatik defendatzeko** eskatzeko. Urte batzuk geroago, 1999an, Nazio Batuen Batzar Nagusiak aldarrikapen-egun hori ezarri zuen, 1999ko abenduaren 17ko 54/134 ebazpenean.



3. Saio didaktikoak

Proposamen didaktikoak hainbat hezkuntza-etapa bildu nahian diseinatu dira, eta, beraz, irakasleek egin beharko dute azken egokitzapena, taldearen heldutasun-mailaren eta gaitasunen arabera.



Haurrak:
Jirafa eta txakala
ezagutzen.



Lehen Hezkuntza:
Pertsonaia
sekretuak.



Bigarren Hezkuntza:
Txakalak
eta jirafak.



**Batxilergoa eta
Heziketa Zikloak:**
Indarkeria matxisten inguruan
txakalarena eta jirafarena egiten.

HAUR HEZKUNTZAKO AZAROAREN 25EKO SAIOA (bigarren zikloa) Jirafa eta txakala ezagutzen

Ikaskuntza-helburuak

- Hezkuntza emozionalaren nozioak txertatzea (emozioen adierazpena, autoerregulazioa...).
- Parekoekin dituzten bizikidetza-egoerak identifikatzea, emozio desberdinak sortzen dituztenak, eta horiei nola heldu hausnartzea.
- Emozioak aitortu eta kudeatzearen, beharrik identifikatzearen eta indarkeriarik gabe komunikatzearen garrantzia ulertzea, gainerako pertsonekin eta ingurunearekin harreman positiboak ezartzeko.
- Indarkeriak prebenitzeari eta egun jakin horri buruz sentsibilizatzea.



Irakasleek ikasleen heldutasun-eta arreta-mailaren arabera ego kitu ahal izango dituzte denborak, eta jarduera hainbat saiotan egin ahal izango dute.

Materialak

Ikasgelako eremu bat.
Papelografoak.
Errotuladoreak.
Pinturak, gometsak...
Zeloa.

Txakal baten eta jirafa baten marrazkia edo argazkia.
Ikasleentzat ohikoak diren komunikazio-egoera gatazkat-suei buruzko esaldien zerrenda.

2030 Agenda

Ardatza: Pertsonak

GJH nagusi honi dago lotuta:
5 - Genero-berdintasuna.

Competencias educativas

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.
Gaitasun pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa.
Herritartasunerako gaitasuna.
Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako gaitasuna.

Saioaren garapena eta orientabide metodologikoak:

IDENTIFIKATU

1. Unea. Txakal eta jirafa ezagutzen.

- Batzar formatuan, ikasleei galdetzen zaie emozioak zer diren eta horietakoren baten izena eta zertan dautzan ezagutzen duten. Horrela, ideia-jasa bat egiten da eta ezagutzen dituzten emozio guztien zerrenda bat egiten da. Anna Llena Serraren *Koloretako munstroa* ipuina ikasgelan duten irakasleek hori erabil dezakete jardueraren zati horretarako.
- Ondoren, Txakal eta Jirafa aurkezten dira (jirafa baten marrazki bat eta txakal baten marrazki bat erakutsiz).
 - Jirafarentzat oso garrantzitsua da bere emozioak entzutea eta azaldu ahal izatea, hala berak nola gainerakoek jakin dezakete nola sentitzen den. Gainerako pertsonak nola sentitzen diren ere oso adi entzutea gustatzen zaio, zer behar duten jakiteko. Gatazka bat dagoenean, inplikaturako aldeei beren emozioak adierazten laguntzen die, zer behar duten eta nola konpon dezaketen galdetzen die
 - Txakalek beti izan nahi du arrazoia, batzuetan haserre esaten ditu gauzak. Azkar erantzuten du, eta ez dio denborarik ematen pentsatzeko nola sentitzen ari den edo nola sentitzen ari diren gainerakoak. Sarritan gatazketan sartzen da, eta ez du jakiten nola konpondu inor triste edo haserre sentiarazi gabe.
- Ondoren, irakasleak bi pertsonaiek nola jokatzeko erakusten duten adibide batzuk jarriko ditu (irakasleak horiek aldatzeko askatasuna izango du, edo bere ustez ikasleek egunerokotasunarekin lotura handiagoa duten beste adibide batzuk gehitzeko):

1. Egoera:

- **TXAKAL:** Emadazu jostailu hori, nik neukan! Beti molestutzen ari zara, gaiztoa zara!
- **JIRAF:** Jostailu horrek oso dibertigarria dirudi. Amaitzen duzunean utziko didazu? Edo elkarrekin jolastuko gara? Hori dibertigarriagoa izango litzateke. Nahi duzu?

2. Egoera:

- **TXAKAL:** Iletik tira egin didazu, beti joka zabiltza, inork ez luke zurekin jolastu behar!
- **JIRAF:** Ez zait gustatzen jotzea, min ematen dit eta gaizki sentiarazten nau. Elkar ondo tratatu behar dugu elkarrekin jolasteko.
- Adibide bakoitzaren ondoren, irakasleak galdetzen die ea beren ustez nork erreakzionatzen duen ondoen, txakalak edo jirafak. Era berean, azaltzen die pertsona guztiei gertatzen zaiela batzuetan txakal samarrak eta besteetan jirafa samarrak izatea, eta horregatik garrantzitsua dela aldi bakoitzean zein animalia diren konturatzea. Azaltzen die, halaber, nola sentitzen diren ulertzeko edo gatazka bat konpontzeko laguntza behar badute, irakasleari edo konfiantzazko pertsona heldu bati laguntza eskatu behar diotela.

DESMUNTATU

2. Unea. Entzunaldi aktiboa.

- Ikasgelako mutur batean jirafaren marrazkia jarriko da, eta bestean txakalaren marrazkia. Ikasle guztiak biribilean eserita jarriko dira, eta irakaslea erdian. Irakasleak esaldi bat irakurriko du, eta adierazteko modu hori txakalari edo jirafari dagokion asmatu beharko dute. Dago-kion animaliaaren marrazkia dagoen aldera korrika egin beharko dute. Ondoren, irakasleak galdetuko die ea zergatik pentsatu zuten animalia hori zela, ea nola sentitzen diren, ea zer behar duten hobeto sentitzeko eta ea nola esango luken beste animaliak. Ondoren, ikasle guztiak erdiko biribilera itzuliko dira, eta irakasleak beste esaldi bat irakurriko du dinamika errepikatuz.
- Irakasleei gonbita egiten diegu ikasleen artean ikusten dituzten ga-tazketan oinarritutako esperientziak erabil ditzaten, ikasleen helduta-sun-mailara gehien egokitzen diren esaldiak aukeratzeko. Lagungarri izan daitezkeen adibide batzuk:
 - Emadazu pintura hori, nik neukan lehenengo, eman edo jo egingo zaitut.
 - Jarri ilararen atzean, irakasleari deituko diot eta gaiztoa zarela es-ango diot.
 - Egin dezaket puzzlea zurekin? Puzzleak asko gustatzen zaizkit eta oso dibertigarria litzateke elkarrekin egitea.

Utziko dizkidazu guraizeak erabiltzen amaitzen duzunean? Esadazu zer beste material behar duzun eta nik utziko dizut zuri.

EKIN

3. Unea. Nire Jirafa

- Zati honetarako, irakasleak jirafa handi baten ingurua marraztuta izan beharko du alde zurretik, paper jarraituan.
- Jarduera amaitzean, talde osoaren artean esango dute zer gustatzen zaien jirafa komunikatzen den moduari buruz, eta irakasleak (ikasleek oraindik idazten ez badakite) jirafaren inguruan jasoko du. Ondoren, ji-rafa modu kolektiboan koloreztatu eta apaintzeko gonbita egingo zaie ikasleei.
- Horma-irudia ikastetxeko leku ikusgarri batean jarriko da, indarkeriarik gabeko komunikazioaren onurak gainerako hezkuntza-komunitatearekin partekatzeko.

Erreferentziak

- [*Programa educar para ser.*](#)

Gogoeta

Saio didaktiko honen helburua da pentsatzea zer gauzek sortzen dizkiguten emozio jakin batzuk, zer gauzeekin gozatzen dugun eta zer gauzek laguntzen diguten harreman positiboak ezartzen, bai eta horiek ulertzeko eta pertsona gisa garatzeko zer beste gauza kudeatzen ikasi behar dugun identifikatzea ere. Funtsezkoa da ulertzea ez dagoela emozio on eta txarrik, eta guztiek behar duguna ulertzeko eta komunikatzeko balio dutela.

Garrantzitsua da jarduera horrek generoaren arabera bereizitako sozializazio-ereduak identifikatzeko ere balio izatea, horiek aldatu ahal izateko. Adibidez, ikusten badugu mutiletak askok txakalaren antzera hitz egiten dutela, edo kosta egiten zaiela haien emozioak eta beharrak identifikatzea eta komunikatzea. Edo neskek komunikazio erasokor baten aurrean atzera egiteko eta mukurrazteko joera dutela. Hori gertatzen bada, proposatzen ditugun dinamikak baliagarriak izan daitezke kudeaketa emozionaleko eta komunikazioko ereduak identifikatzeko eta taldearekin batera horiek eraldatzen saiatzeko.

Funtsezkoa da ikasleek erreferentziazko pertsona helduari laguntza eskatzearen garrantzia argi izatea. Horrela, zeharkatzen gaituzten emozioak identifikatzen eta horiei izena jartzen, horien kausak identifikatzen, zer behar dugun jakiten eta indarkeriarik gabe komunikatzen lagunduko digute.

LEHEN HEZKUNTZAKO AZAROAREN 25EKO SAIOA

Pertsonaia sekretuak

Ikaskuntza-helburuak

- Indarkeriarik gabeko komunikazioaren funtsezko elementuetara ohitzea eta horien aplikazioa eredugarri izatea.
- Emozioak identifikatzea, premiekin duten harremana ezagutzea eta indarkeriarik gabeko komunikaziotik nola adierazi jakitea.
- Garrantzitsua da haurrek beren kezkak beren familiarekin eta erreferentziazko helduekin partekatzea, haiek kudeatzeko eta konpontzeko moduari buruzko orientazioa jaso dezaten.
- Indarkeriak prebenitzeari eta egun jakin horri buruz sentsibilizatzea.



Materialak

Ikasgelako eremu bat.
Txakalen marrazkiak eta
jirafen marrazkiak dituzten
gutunak (jarduera egin
aurretik prestatzea gomen-
datzen zaie irakasleei).

Arbela.

Errotuladoreak.

Paperezko orriak.

Kola.

Zeloa.

Paper jarraitua.

2030 Agenda

Ardatza: Pertsonak

GJH nagusi honi dago lotuta:

5 - Genero-berdintasuna

Hezkuntza-gaitasunak

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.
Gaitasun pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa.
Herritartasunerako gaitasuna.
Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako gaitasuna.

Saioaren garapena eta orientabide metodologikoak:

IDENTIFIKATU

1. UNEA: STOP

- Aldez aurretik ideia-jasa bat egiten da ikasleekin, eta hau galdetzen zaie: *zer da emozio bat? Zeintzuk ezagutzen dituzte? Zertarako uste duzue balio dutela? Baliagarriak iruditzen zaizkizue?* (Del revés filmei buruzko aipamenak egitea gomendatzen da, ikasle askok emozioak pelikula horietako pertsonaien bidez izenda baititzake). Baliagarria izan daitekeen beste material bat: [Trabajando emociones, avanzando en igualdad. Ikaskuntza-egoerak](#) (17. orrialdea).
- Ondoren, “stop” izeneko jolas batean jolastuko direla azalduko zaie. Jolas horretan, pertsona batek emozio baten izena esango du, eta, orduan, eskuinean eserita dagoen pertsonatik hasita, emozio horrekin lotutako hitzak esan beharko dituzte, irakasleak “stop” esan arte. Orduan, txanda egokitzen zaion pertsonak beste emozio bat esango du eta hitz elkartuak esateko sekuentzia errepikatuko da, baina kontrako noranzkoan (hau da, ezkererantz). Irakasleak “stop” esaten duen bakoitzean emozio berri bat esango da, eta norabidea aldatu egingo da.
- Irakasleak arbelean idatziko ditu ateratzen diren hitzak, eta, ondoren, ikasleei galdetuko die ea jasotako hitz guztiak emozioak/sentimenduak diren. Hala ez bada, galdetuko du ea horietakoren bat premia bat den.
- Halaber, ikasleekin hausnartuko du zaila egin ote zaien emozioak izendatzea eta haiekin lotutako hitzak aurkitzea.

2. UNEA: Pertsonaia sekretua asmatzen.

- Jirafen eta txakalen pertsonaiak aurkeztuko zaizkie ikasleei, eta indarkeriarik gabeko komunikazioa zertan datzan azalduko zaie. Horretarako, material hauek irakurtzea gomendatzen diegu irakasleei:
 - [Dos versiones de una mañana cualquiera y una forma de comunicarnos por descubrir.](#)
 - [Prácticas comunicativas para una cultura del diálogo y la colaboración.](#)
- Ikasleen artean txakalen marrazkiak dituzten gutunak eta jirafen marrazkiak dituzten gutunak banatzen dira, eta egokitu zaien pertsonaia isilpean gorde behar dutela esaten zaie.
- Pertsona bat ausaz irteten da erdigunera, eta gainerako pertsonak “bai”/“ez” erantzuteko galderak egin beharko dizkiote, bere pertsonaia zein den jakin arte. Hauek dira arauak: asmatu aurretik gutxienez 5 galdera egin behar dira, eta ezin dira animaliei buruzko galderak egin, pertsonaiaren komunikazio-estiloari buruzkoak soilik. Egin ditzaketen galderen adibide batzuk: *Nola sentitzen den pentsatzeko denborarik hartzen al du? Ikaskideak kritikatzin al ditu? Beste ikaskide batzuei bota ohi die errua? Besteiei entzuten die eta interesa du nola sentitzen diren jakiteko? Etab.*

DESMUNTATU

3. UNEA. Baterako gogoeta

- Hainbat aldiz jolastu ondoren, dinamika gelditu egingo da, eta pertsona guztiak berriro biribilean jarriko dira. Denen artean gogoeta egingo dute honako galdera hauen bidez:
 - Zer kostatu zaizue gehiago, pertsonaia asmatzeko galderak pentsatzea edo zuen pertsonaia horrelakoa den ala ez erantzutea?
 - Txandaren batean pertsonaia asmatu gabe geratu al da?
 - Pertsonaia asmatzeko bereziki garrantzitsua iruditzen zaizuen galderaren bat egon al da, komunikatzeko moduari dagokionez funtsezkoa izan dena?
 - Erraza edo zaila al da sentitzen duguna behar dugunarekin konektatzea? Eta beste norbaiti adieraztea?
 - Noiz esaten digu norbaitek zer sentitzen duen eta zer behar duen? Horrek lagundu egiten digu ala gaizki sentiarazten gaitu? Zergatik?
- Erantzunak jasotzen ditugu eta ikasleei emozioen garrantzia azaltzen zaie, eta esaten zaie batzuetan identifikatzea kostatzen dela eta sentitu baino ez ditugula egiten, baina oso garrantzitsua dela emozioak behatzea eta izendatzea. Halaber, sentimendu horiek “jirafa” estiloan adieraztea garrantzitsua dela, beharrei erantzuteko. Garrantzitsua da, halaber, besteak behatzeko gai izatea, zer sentitzen duten edo zer behar duten ulertzeko, eta, batez ere, belarriak zabalik edukitzea, adierazi behar digutena modu aktiboan entzuteko. Horrek guztiak gure gatazka indarkeriarik gabeko komunikaziotik kudeatzen lagunduko digu.

EKIN

4 UNEA. Lagin kolektiboa

- Guztion artean indarkeriarik gabeko komunikazioari buruzko egunkari bat sortuko dute. Ikasgela 4 edo 5 pertsonako taldeetan banatuko da, eta talde bakoitzak albisteak, elkarrizketak, tira komikoak, ilustrazioak edo publizitatea sortuko ditu, indarkeriarik gabeko komunikaziotik ikasi dutenari buruz garrantzitsua iruditzen zaient zerbait buruz hitz egiteko.
- Ondoren, sorkuntza bakoitza paper jarraitu batean itsatsiko da, egunkari-orri handi bat balitz bezala, eta parte-hartzaile guztien artean apainduko dute estetika hori emateko.
- Ikastetxeko ageriko leku batean jar daiteke, hezkuntza-komunitate osoarekin partekatzeko, edo Lehen Hezkuntzako beste maila batzuetan sortutako egunkariekin txandakatu eta trukatu daiteke.

Gogoeta

Garrantzitsua da ulertzea beste pertsona batzuekin dugun jokabideak edo komunikatzeko moduak ez daukala lotura soilik beste pertsona batzuek egiten edo esaten dutenari erantzutearekin; gure barruan ere zerbait gertatzen da. Pentsamendu, sentimendu eta behar batzuk behatu eta ulertu behar ditugu, indarkeriarik gabeko komunikaziotik adierazi ahal izateko.

BIGARREN HEZKUNTZAKO AZAROAREN 25EKO SAIOA Txakalak eta Jirafak

Ikaskuntza-helburuak

- Emozioen, pentsamenduen, premien eta komunikazioaren barne-esperientzia ulertzea.
- Indarkeriarik gabeko komunikazioak gatzak konpontzeko eta beharrak asetzeko duen garrantziaz hausnartzea.
- Harremanetan lotura osasungarriak nola eraikitzen diren hausnartzea.
- Indarkeriak prebenitzeari eta egun jakin horri buruz sentsibilizatzea.



Materialak

Bingo eroaren taularen kopia.
Boligrafoak.

REDS eta InteRed-en *“Dos versiones de una mañana cualquiera y una forma de comunicarnos por descubrir”*

de REDS e InteRed komikiko egoeren kopia inprimatuak.
(3. eta 4. orrialdeak).

Orriak.

Errotuladoreak.

2030 Agenda

Ardatza: Pertsonak

GJH nagusi hauei dago lotuta:

5 - **Genero-berdintasuna**

4 - **Kalitatezko hezkuntza**

Hezkuntza-gaitasunak

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.
Gaitasun pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa.
Herritartasunerako gaitasuna.
Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako gaitasuna.

Saioaren garapena eta orientabide metodologikoak:

1. SAIOA

IDENTIFIKATU

1. UNEA: Bingo eroa.

- Hasteko, ikasleei azalduko zaie premiak asetzeko estrategien eta beharren arteko aldea. Horretarako, irakasleak REDS eta InteRed-en [Elkarrizketaren eta lankidetzaren kultura baterako praktika komunikatiboak](#) (Prácticas comunicativas para una cultura del diálogo y la colaboración) gidaren 4. orrialdetik 9.era bitarteko orrialdeak hartuko ditu erreferentziazat.
- Ondoren, ikasleei taula honen kopia bat emango zaie, eta lau bakoitzean premia bat eta premia hori asetzeko estrategia bat idazteko eskatuko zaie, adibideak erakusten duen bezala. Laguntza gisa, REDS eta InteRed-en [Elkarrizketaren eta lankidetzaren kultura baterako praktika komunikatiboak](#) (Prácticas comunicativas para una cultura del diálogo y la colaboración) gidaren 7. orrialdeko premien taularen kopia emango zaizkie ikasleei.
- Ikasleek taula banaka bete ondoren, bingo eroaren jokoa azalduko da. Gelako espazio zabal bat erabiliz, ikasleek mugitu egin beharko dute, eta premietan, estrategietan edo bietan idatzitakoan haiekin bat datozen pertsonak bilatu beharko dituzte, eta haien izena idatziko dute. Baliteke bat etortzea premiarekin, baina beste estrategia batekin erantzun izana; kasu horretan, pertsonaren izena idatziko dute, bai eta behar hori betetzeko erabili duen estrategia alternatiboa ere. Gerta daiteke, halaber, estrategiarekin bat etortzea, baina premia desberdinak asetzeko erabiltzea. Kasu horretan, bat egiten duen pertsonaren izena idatziko da, bai eta estrategia komun horrek estaltzen duen premia ere.

1. Premia Adibidez: Sormena eta plazera.	2. Premia	3. Premia	4. Premia	5. Premia
Marta				
1 Estrategia Adibidez: Marrazteko eta margotzeko nire zaletasunari denbora eskaintzea.	2 Estrategia	3 Estrategia	4 Estrategia	5 Estrategia
Marta: harizko eskumuturrekoak egiten ditu.				

- Txanda bat baino gehiago egin ondoren, batzar formatuan jarri eta ikasleei galdetzen zaie: *Kostatu zitzaizuen zuen beharrak eta horiek*

asetzeko erabiltzen dituzuen estrategiak identifikatzea? Kointzidentzia asko aurkitu zenituzten edo kostatu egin zitzaizuen? Kointzidentzia gehiago aurkitu zenituzten premietan edo estrategietan? Harritu egin al zaituzte pertsonaren batek premia komunak asetzeko erabilitako estrategiak?

- Erantzunak aprobetxatzen dira azaltzeko denok ditugula premia komunak, sentimendu fisiko edo emozionalen bidez hautematen ditugunak (adibidez, gose-sentsazioari esker jateko beharra hautematen dut, edo tristura-sentimenduaren bidez hurbiltasun- eta kontsolamendu-beharra). Horiek asetzeko, estrategiak erabiltzen ditugu, ekintza moduan. Garrantzitsua da azpimarratzea gatazkak gertatzen direnean estrategien/ekintzen mailan gertatzen direla, ez premien mailan, eta hor bihurtzen dela funtsezkoa gure sentimenduez eta premiez arduratzeko modua eta komunikazioa erabiltzeko modua.

DESMUNTATU

2. UNEA. Txakalarena eta Jirafarena egiten

- Jarduera horretan, REDS eta InteRed-en “*Dos versiones de una mañana cualquiera y una forma de comunicación por descubrir*” komikia erabiliko dugu.
- Ikasgela hiru taldetan banatuko da, eta talde bakoitzari egoera baten komikiaren zatia banatuko zaio, hau da, 1. taldeari “Nire lagunak” egoera, 2. taldeari “Patioa” egoera eta 3. taldeari “Nire irakasleak” egoera, bai txakalaren bertsioan (3. orrialdea), bai jirafaren bertsioan (4. orrialdea). Talde bakoitzak *role playing* batean interpretatzeko prestatuko du. Irakasleak “nire ahots jirafa” eta “nire ahots txakala” egingo ditu.
- Interpretazioen ondoren, ikasleei galdetuko zaie zer desberdintasun ikusten dituzten komunikatzeko eta egoerei aurre egiteko bi moduen artean. Ikasleen erantzunak ezagutza kolektiboki eraikitzeko erabili behar dira, “txakalaren ahotsa” eta “jirafaren ahotsa” zertan datzan azalduz, eta gure barne-esperientzia emozioen/sentimenduen, pentsamenduen, premien eta ekintzen/estrategien elkarketa bat dela azalduz. Elementu horiek behatzeko denbora hartzea funtsezkoa da, eta ez da beti erraza horiek bereiztea, gertatzen zaiguna kanpotik datorrela pentsatzeko joera baitugu, bizitzen ari garen barne-esperientziari jaramonik egin gabe. Irakasleak REDS eta InteRed-en “*Dos versiones de una mañana cualquiera y una forma de comunicarnos por descubrir*” komikiaren 5-9 eta 11. orrialdeak erabili ahal izango ditu azalpenarako euskarri gisa.
- Indarkeriarik gabeko komunikazioa indarkeria matxisten prebentzioarekin lotzeko, honako galdera hauen bidez hausnartuko da ikasleekin: *Zure ustez, egoera horietan protagonista neska izan beharrean mutila balitz, ikaskideen portaerak, iruzkinak edo erantzunak berdinak izango lirateke? Detektatzen al duzu genero-estereotipoekin lotura duen iruzkinik (adibidez: “ai, neska, benetan sentibera zara”, nesken erantzunak gehiegizkoak direla esanez)?*

2 SAIOA

EKIN

3. UNEA. Memeak

- Ikasitakoarekin esperimentatzeko, taldeka memeak egin beharko dituzte, hitz gutxitan eta modu komikoan azalduz txakalaren komunikatzeko modua eta jirafarena. REDS eta InteRed-en [*“Dos versiones de una mañana cualquiera y una forma de comunicarnos por descubrir”*](#) komikiaren 14. orrialdeko eskema ere erabil daiteke euskarri gisa.
- Ondoren, erakusketa bat jarriko da ikastetxeko leku ikusgarri batean, hezkuntza-komunitatearekin partekatuzko.

Gogoeta

Taldearekin gogoeta egingo da beren sentimenduak ezagutzearen, pentsamenduetatik bereiztearen eta bere premiak betetzeko egiten dituzten ekintzez jabetzearen garrantziaz.

Azpimarratu egingo da, halaber, indarkeriazko komunikazio-moduak, agresibitatean, erreaktibotasunean, lardetan eta zapalkuntzan oinarrituak, indarkeria matxisten parte direla, eta funtsezkoa dela horiek identifikatzea, bai jasotzen dituenak bai erabiltzen dituenak. Indarkeriarik gabeko komunikazioak elkarrekiko ongizatean eta emozioen onarpenean oinarritutako pertsonen arteko harremanak sustatzen ditu, ekintzak errespetuaren esparruan gauzatzeko eta sentitzen dugunaz arduratzeko.

BATXILERGOKO ETA LANBIDE HEZIKETAKO MARTXOAREN 25EKO SAIOA

Indarkeria matxisten inguruan txakalarena eta jirafarena egiten

Ikaskuntza-helburuak

- Indarkeria matxisten sakoneko arrazoiak (egiturazkoak), indarkeria motak, horien ondorioak eta inpaktuak lantzea.
- Indarkeriarik gabeko komunikazioaren funtsezko elementuak ezagutzea eta horiek harremanetan lotura osasungarriak sortzeko duten gaitasuna ezagutzea.
- Indarkeria matxisten aurrean konpromiso aktiboa hartzen eta eragileak garela jabetzen laguntzea.
- Indarkeriak prebenitzeari eta egun jakin horri buruz sentsibilizatzea.



Materialak

Papelografoak.
Errotuladoreak.
Bingo eroaren taularen kopiak.
Boligrafoak.
REDS eta InteRed-en “Dos versiones de una mañana cualquiera y una forma de comunicarnos por descubrir” de REDS e InteRed komikiko egoeren kopia inprimatuak. (3. eta 4. orrialdeak).
Orriak.
Boligrafoak.
Arbela.

2030 Agenda

Ardatza: Pertsonak

GJH nagusi honi dago lotuta:

5 - Genero-berdintasuna.

Hezkuntza-gaitasunak

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.
Gaitasun pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa.
Herritartasunerako gaitasuna.
Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako gaitasuna.

Saioaren garapena eta orientabide metodologikoak:

1. SAIOA

IDENTIFIKATU

1. UNEA. Bingo eroa.

Ikusi atal bera Bigarren Hezkuntzako proposamenean, berdinak baitira.

DESMUNTATU

2. UNEA. Txakalarena eta jirafarena egiten.

Ikusi atal bera Bigarren Hezkuntzako proposamenean, berdinak baitira.

2. SAIOA

IDENTIFIKATU

3. UNEA. STOP hitzak.

- Ikasgela taldeka banatzen da, eta talde bakoitzak paperezko orri bat izan behar du, irakasleak ozen irakurriko duen kontzeptu gakoa bertan idazteko. “Denbora” esaten denean, ikasleek horrekin erlazionatu-tako 7 kontzeptu idatzi beharko dituzte. Amaitzen duen lehen taldeak STOP oihukatzen du. Txanda bakoitzaren ondoren, talde irabazlearen hitzak eta beste taldeen ekarpenak berrikusiko ditugu. Irakasleak azalpenetan sakondu ahal izango du jarduera honetan bertan aurkituko dituen “bideratzailearentzako saioa gidatzeko definizio eta adibideak” erabilia:
 - Patriarkatua**
Terminoaren egiturari arreta berezia jartzea, generoan oinarritutako menderatze-/zapalkuntza-sistema gisa.
 - Indarkeria**
Galdetu zein indarkeria ikusten duten. Jolasean indarkeria-motak aipatu badituzte, galdetu adibide espezifikoek, jarduketan eta beste aukera batzuen inguruan.
 - Kontrola**
Galdetu aurreko txandan identifikatu dituzten indarkeriekin duten loturaz eta inplikazioez.
 - Maitasuna**
Galdetu tratu onean oinarritutako pertsonen arteko harremanen ezaugarriez eta harreman toxiko baten ezaugarriez.
- Ikasleek biltzen dituzten puntuak arbelean idatziko dira. Irakasleek bonus gehigarri bat (2 puntu) eman dezakete, jardueraz hitz egiten den bitartean taldeek egiten dituzten esku-hartze eta azalpen bereziki garrantzitsuengatik.

4. UNEA. Bateratzea eta gogoeta

- Gogoetan honelako galderak landuko dira:
 - Zein kontzepturi buruzko hitzak aurkitzea kostatu zaizu gehien?
 - Beste talde batzuk entzutean, ba al dago harritu zaituen hitzik?

- Aipatutako kontzeptu eta terminoetatik, zuen ustez, zeintzuk dute zerikusia sakoneko arrazoiekin eta faktore eragileekin? Zergatik uste duzu nahasten direla?
- Zure ustez, nola lagun dezake sakoneko arrazoi horiei helduak indarkeria matxistak prebenitzen?
- Ezer berririk ikasi al duzue indarkeria matxisten motei, arrazoiei eta ondorioei buruz?

Bideratzailearentzako saioa gidatzeko definizioak eta adibideak:

Hasi aurretik, kontuan izan behar da irakasleek osatu edo zabaldu egin dituzaketela definizio hauek, eta ikasleei galdetu diezaieketela ezagutzen dituzten beste batzuei buruz edo ingelesezko indarkeriekin lotutako terminoei buruz (*grooming*, *gaslighting*, etab.).

- **Genero-indarkeria:** pertsona edo pertsona-talde baten aurka egin dako edozein kalte mota, haren sexua, generoa, sexu-orientazioa eta/edo genero-identitatea dela eta, indarkeria egitezkoa edo hautemandakoa izan. Genero-indarkeria botere-desoreka batean oinarritzen da, eta kontrola du xede. Umiliatzeko eta pertsona edo pertsona-talde bat beheagoko eta/edo menpeko sentiarazteko asmoarekin egiten da. Sexuala, fisikoa, ahozkoa, psikologikoa (emozionala) edo sozioekonomikoa izan daiteke, besteak beste.
- **Genero-indarkerien sakoneko arrazoiak:** gizarte baten genero-diskriminazioko jarrerak eta praktikak dira. Normalean, generoak rol zurrunetan eta botere-egitura baten barruan kokatzen dira, eta askotan emakume gisa edo beste genero batzuekin sozializatutako pertsonak gizon gisa sozializatutako pertsonen mende egoten dira. Genero-rol "onartu" horiek indartu egiten dute gizonek gainerako pertsonen gaineko erabaki- eta kontrol-ahalmena dutelako ustea. Genero-indarkeria erabiliz, erasotzaileek pribilegioei, botereari eta kontrolari eutsi nahi diete. Horrez gain, sakoneko arrazoiaren artean aipatu behar dugu egoera horiek indartu egin daitezkeela testuinguru jakin batzuetan, giza eskubideen, genero-berdintasunaren, demokraziaren eta gatazkak konpontzeko baliabide baketsuen gaineko kontzientziaziorik ez dagoenean. Hauek dira arrazoietako batzuk: botere-abusua, genero-desberdintasunak, patriarkatua, genero-rolak eta -estereotipoak, heteronormatibitatea, kapazismoa, genero-binarismoa.
- **Laguntzen duten faktoreak:** genero-desberdintasunak eta botere-abusua genero-indarkeria mota guztien funtsezko arrazoiak badira ere, beste faktore batzuek eragina izan dezakete indarkeria motan eta horien irismenean, zaurgarritasuna areagotuz. Faktore eragileak arrazoiekin nahasten dira askotan, baina garrantzitsua da bereiztea. Hauek dira faktore eragileetako batzuk: drogen erabilera/abusua; desberdintasun ekonomikoak; hezkuntzarik eza; gizartearen, erakundearen eta familien babesik eza; lurralde bateko estaturik eza.
- **Genero-indarkeria motak:** Lau kategoria orokorretan sailka daitezke (emozionala/psikologikoa, fisikoa, sexuala, ekonomikoa), eta kategoria horiek gora egiten dute zuhaitzaren adar bihurtzeraino.

Genero-indarkeria motak ingurune birtualetik kanpokoak izan daitezke, eta ingurune birtualaren barruan honako hauek sartzen dira:

- Indarkeria psikologikoa: larderia, jazarpena, zelata, kontrola, hertsapena, isolamendua, hitzezko iraina, etab.
 - Indarkeria fisikoa, indar fisikoa erabiltzen duena. Kolpeak, ostikoak, ukabilkadak eta gehiago.
 - Sexu-indarkeria; alegia, beste pertsonaren baimenik gabe egindako sexu-ekintzak. Bortxaketa, eraso, gizakien salerosketa, nahi ez den hitzezko sexu-jokabidea eta abar barne hartzen ditu.
 - Indarkeria ekonomikoa, kalte ekonomikoak eragiten dituzten ekintzei lotua. Finantza-baliabideen murrizketa, jabetzari egindako kalteak, baliabideez gabetzea, enplegua mugatzea eta abar hartzen ditu barne.
- **Genero-indarkeriaren ondorioak:** biktimentzat edo bizirik iraun dutenentzat eta haien ingurunearentzat irismen handikoak dira, ondorio fisikoetatik hasi eta emozional eta psikologikoetaraino.
 - Ondorio psikologikoak: lotsa, antsietatea, depresioa, apetitu-galera, eskolara joateko edo ikasteko zailtasuna eta abar sentitzea.
 - Ondorio fisikoak: osasun-arazoak, autolesioak, STIak, nahi gabeko haurdunaldiak, etab.
 - Funtzionalak: ibilbide bat aldatzea edo profil bat ezabatzea sare sozial batean.
 - Ondorio sozialak: familiaren eta lagunaren bazterketa, arbuioa edo isolamendua.

5. UNEA. Indarkeria matxisten aurka txakalarena eta jirafarena egiten

- Aurreko ariketako talde berberetan, indarkeriarik gabeko komunikazioari buruz aurreko saioan ikasitakoak berreskuratuko ditugu.
- Kasu honetan, indarkeriarik gabeko komunikazioari buruzko *role playing* bat planteatu beharko dute, harreman toxikoaren adierazleren bat lantzeko. Horretarako, lehenik eta behin gaia aukeratuko dute (*adibidez, bikote batean alde bati bere mugikorraren edo sare sozialen pasahitza eskatuko zaio, maitasun-froga gisa*). Egoeraren bi bertsioak egituratu beharko dituzte, txakalaren ahotsa nagusi duena eta jirafaren ahotsa nagusi duena.
- Laguntzeko, REDS eta InteRed-en [*“Dos versiones de una mañana cualquiera y una forma comunicarnos por descubrir”*](#) komikiaren 14. orrialdea kontsultatu ahal izango dute.
- Egoerak amaitzean, publikoak komunikazio-estiloen erabilerari buruzko iruzkinak, hausnarketak eta atzeraelikadurak egin ahal izango ditu.

EKIN 6 UNEA. Utopiaren egunkaria

Talde berberei eutsiz, utopiaren egunkari baten orrialdeak sortzeko eskatuko zaie. Bertan, gaurkotasuneko gaiak planteatu beharko dituzte, baina ondorioak edo loturak indarkeriarik gabeko komunikazioaren arabera eraldatuz eta fikziozko estrategiak edo egoerak planteatuz (*adibidez, gerran dauden bi naziotako*

liderren arteko elkarriketa bakea lortzeko, edo meatzaritza-enpresa baten eta herritarren mugimendu baten arteko akordioak lurralde batean ekosistema babesteko...). Funtsezkoa da egunkari honetan agertzen diren albiste, elkarriketa, ilustrazio eta abarretako batzuk indarkeria matxistei buruzkoak izatea.

Egunkari hori horma-irudi moduan egin daiteke eta ikastetxeko ageriko gune batean jarri, edo Batxilergoko/LHko beste atal edo maila batzuetan egingdakoarekin trukatu.

Referentziak

“Jardueren fitxak. Hezitzaileentzako gida”, LOVE ACT proiektua, Genero-indarkeria prebenitzeko sexu-hezkuntza positiboa eta interseksionala bizitzen, Europar Batasunak finantzatua.

Gogoeta:

Jardueretan, garrantzitsua da ikasleek sentimenduak, pentsamenduak, premiak eta ekintzak/estrategiak identifikatzea eta bereiztea. Batzuetan kosta egiten da batzuen eta besteen arteko mugak identifikatzea, eta praktika behar da.

Era berean, garrantzitsua da ulertzea gure barne-egoera eta erreakzioak ez direla beti kanpoko gertaera baten edo beste pertsona baten portaeraren ondorio; garrantzitsua da introspektziora jotzea, elkarri entzutea eta sentitzen dugunaz eta behar dugunaz arduratzea, eta indarkeriarik gabe komunikatzea, alderdi guztien artean ulertzea eta ongizatea bilatuz.

Azkenik, indarkeria matxisten eta komunikazio-estiloen arteko harremanari buruz gogoeta egitera gonbidatuko dira ikasleak, eta indarkeriarik gabeko komunikazioa praktikatzeko pertsonen arteko harremanak zergatik eraldatzen dituen hausnartzera.

Argitalpen hau Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziaren (AECID) finantza-laguntzarekin egin da, «Herritartasun global baten aldeko 4.7 helburua: 2030ean gure konpromisoa betetzea» hitzarmenaren kontura (2022/PCONV/000319)

Argitalpenaren edukiaren erantzukizun osoa InteRed erakundeari dagokio, eta ez du, ezinbestean, AECIDen iritzia islatzen.

Finantzaketa:



InteRed 

Diseño portada PURA QUITERIA